

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Saila: 10 LURRALDE OREKA

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL

Programa: 13 TOKI ERAKUNDEENTZAKO
AHOLKULARITZA

Programa: 13 ASESORAMIENTO A ENTIDADES
LOCALES

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Programa honen barruan hiru azpiprograma daude:

1. – Toki erakundeen informatizazioa

Azpiprograma honetan, besteak beste, honako hauek kontratatzeko partidak daude: toki erakundeen informatizazio hobea ahalbidetzen duten zerbitzuak; sustapen, zabalkuntza eta hedapen jarduerak, eta denetarikoa tresnez hornitzea (informatikoak eta/edo kudeaketakoak). Hori guztia toki erakundeen behar bezalako funtzionamendua bultzatzeko eta sustatzeko.

2. – Landa turismoa eta aisialdirako tokiko parkeak sustatzeko laguntza

Azpiprograman toki erakundeak sustatzeko jarduketara ildoak jasotzen dira, bai eta Aisialdirako Tokiko Parkeen Arabako Sarea kudeatzeko jarduerak ere, tokiko parke horien mantentze lanak eginez, behar bezala funtziona dezaten.

3.- Tokiko erakundeentzako lege eta ekonomia euskarria

Azpiprogramaren helburua da aholkularitza juridikoa eta ekonomikoa ematea toki erakundeetara eta epaiketetan toki erakundeak defendatzea.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

1- Toki erakundeen informatizazioa

Azpiprograma honen helburu orokorra da Arabako Toki Erakundeen funtzionamenduaren eta antolakuntzaren erabateko garapena lortzea, baita kudeaketarena ere.

Urteko helburuak erabilgarri zegoen aurrekontuaren arabera ezarri ziren. Behin aurrekontua gauzatu,

I. MEMORIA

Este programa se divide, a su vez, en tres subprogramas, que responden a:

1. – Informatización de entidades locales

En este subprograma se incorporan partidas destinadas, entre otras, a la contratación de servicios que permitan una mejor informatización de las entidades locales, acciones de promoción, difusión y divulgación, dotación de herramientas de todo tipo (informáticas y/o de gestión) Todo ello encaminado al apoyo e impulso del adecuado funcionamiento de las Entidades Locales.

2. – Apoyo a la promoción del Turismo Rural y Parques Locales de Esparcimiento

En este subprograma se incorporan líneas de actuación dirigidas a la promoción de las Entidades Locales así como acciones para la gestión de la Red Alavesa de Parques Locales de Esparcimiento, realizando el mantenimiento de dichos parques locales para un óptimo funcionamiento de los mismos.

3.- Soporte jurídico y económico de entidades locales.

El objetivo que persigue el subprograma queda establecido como el asesoramiento jurídico y económico y la defensa en juicio de las Entidades Locales.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

1- Informatización de Entidades Locales

El objetivo generalista que persigue este subprograma queda establecido como el logro del óptimo desarrollo en su funcionamiento y organización de las Entidades Locales alavesas, así como de su gestión.

Los objetivos anuales se fijaron en relación con el presupuesto disponible. Una vez ejecutado éste,

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA

Programa: 13 TOKI ERAKUNDEENTZAKO AHOLKULARITZA

esan daiteke, helburuak, oro har, bete egin direla.

Egindako jardueren artean hauek azpimarra daitezke:

- Udalak finantzatzea informatika zerbitzuak eta mantentze lanak egiteko informatika sistemak garatzeko eta ezartzeko.
- Kudeaketa aplikazioak dituzten udaletako ekipoei laguntza teknikoa ematea.
- Indarrean dauden legeak betetzeko, administrazio elektronikoa ezartzeko prozeduraren jarraipena egitea.
- Arabako udaletan teknologia berriak ezartzen jarraitzea (administrazioen arteko elkarreragingarritasuna, jakinarazpenak...).

2021eko ekitaldian, egoitza elektronikoen eredu berri da, herritarrentzat erabilgarriagoa izan dadin, eta udalen web orriaren eredu berri bat ere diseinatu da.

2021eko azken seihilekoan, lurraldeko udalekin eta kuadrillekin lan egin da administrazio elektronikoa kudeatzeko eredu berri bat zehazteko, kudeaketa programak hobetzeko ez ezik, toki erakundeen eraldaketa digitalerako berringeniaritza prozesuan hobeto laguntzeko eta erabiltzaileei arreta emateko zerbitzuak birdefinitzeko ere. Gainera, foru aldundiak teknologia berrietara egokitzeko toki erakundeen eskura jartzen dituen zerbitzarien arkitektura eta konektibitatea aztertu dira.

Lan horren emaitza 2022ko ekitaldian gauzatuko da, Arabako toki erakundeen bigarren eraldaketa digitaleko prozesuari ekingo baitzaio.

Era berean, administrazio batzarren beharrak aztertzen hasi da. Uste da une egokia dela kontzejuen administrazio elektronikoko proiektu bati ekiteko, 2021eko hauteskundeetan hautetsitako pertsonen kudeaketa 2022ko

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL

Programa: 13 ASESORAMIENTO A ENTIDADES LOCALES

puede afirmarse, que en líneas generales, los objetivos se han cumplido.

De entre las acciones desarrolladas cabe destacar:

- Financiación del desarrollo e implantación de sistemas informáticos para el mantenimiento y servicios informáticos a Ayuntamientos.
- Proporcionar soporte técnico a los equipos de los Ayuntamientos que contienen aplicativos de gestión.
- Seguimiento del proceso de implantación de la administración electrónica, con el objetivo de cumplir las leyes vigentes.
- Continuar actuando en la implantación de nuevas tecnologías en los ayuntamientos alaveses (interoperabilidad entre administraciones, notificaciones, ...)

En el ejercicio 2021 se ha renovado el modelo de sedes electrónicas existente, haciéndolo más usable para la ciudadanía, se ha diseñado un nuevo modelo de página web municipal.

Durante el último semestre de 2021, se ha estado trabajando con los ayuntamientos y cuadrillas del Territorio en la definición de un nuevo modelo de gestión de la administración electrónica que incluye no solamente la mejora en los programas de gestión, sino un mejor apoyo en la reingeniería de procesos necesaria para la transformación digital de las entidades locales y la redefinición de los servicios de atención a usuarios. Además, se ha analizado la arquitectura de servidores y conectividad que la Diputación Foral pone a disposición de las entidades locales para adaptarla a las nuevas tecnologías.

Este trabajo se va a materializar en el ejercicio 2022 en el inicio de un proceso de segunda transformación digital de las entidades locales de Álava.

Así mismo, se ha comenzado el análisis de necesidades de las Juntas Administrativas. Se considera un buen momento para acometer un proyecto de administración electrónica concejil, ya que durante el ejercicio 2022 empieza la gestión de

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA

Programa: 13 TOKI ERAKUNDEENTZAKO
AHOLKULARITZA

ekitaldian hasiko baita.

2- Landa turismoa eta aisialdirako tokiko parkeak sustatzeko laguntza

Programa honen helburua da toki erakundeak zein aisialdirako tokiko parkeak bisitatzen dituzten guztiek gozatzea lortzea.

Arlo honetan jarduerak funtsezko hiru ardatzen inguruan egiten dira:

- Aisialdirako tokiko parkeetako zaborrak biltzeko zerbitzuaren kudeaketa.
- Aisialdirako tokiko parkeak mantentzeko lanak.
- Aisialdirako tokiko parkeetako altzariak berriztatzea eta erostea.

Ekitaldian beharrezko jarduerak gauzatu dira hainbat kuadrillarekin eta Gorbealdeko Partzuergoarekin, haien udalerrietako edo inguruetakoko tokiko parkeetako zaborrak biltzeko xedearekin sinatutako hitzarmenak eta kudeaketa esleipenak luzatzeko, zerbitzu merkeagoa eta eraginkorragoa lortzeko.

Herrietako parkeak mantentzeko lanei dagokienez, foru dekretu bidez, INDESA foru enpresa publikoari eman zitzaion 2021ean Arabako herrietako aisialdirako parkeak mantentzeko zerbitzuaren ardura (92.973,82 euro).

Helburua neurri handian bete dela esan liteke, parkeak hobetzeko neurriak hartu baitira: mantentze lanak eta zaborrak batzeko lanak ondo egin dira, eta baita toki erakundeak garatzeko eta sustatzeko jarduerak ere.

Legutio, Kanpezu, Bastida, Guardia, Urkabustaiz, Artziniega, Amurrio eta Oiongo udalerrietako tokiko parkeetan 63.774,91 euroko inbertsioa egin da (altzariak berritu dira).

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL

Programa: 13 ASESORAMIENTO A ENTIDADES
LOCALES

las nuevas personas electas en las elecciones de 2021

2 - Apoyo a la promoción del Turismo Rural y Parques Locales de Esparcimiento.

Este subprograma responde al objetivo del logro del disfrute de todos aquellos que visiten tanto las distintas entidades locales como sus propios Parques Locales de Esparcimiento.

Las acciones en esta área giran en torno a tres ejes fundamentales:

- La gestión del servicio de recogida de basuras de los parques locales de esparcimiento.
- El mantenimiento de los parques locales de esparcimiento.
- La renovación y adquisición de mobiliario para los parques locales de esparcimiento.

Durante el presente ejercicio se realizaron las acciones oportunas para la prórroga de Convenios-Encomiendas de gestión con diversas Cuadrillas, así como con el Consorcio de Estribaciones del Gorbea, para la realización del servicio de recogida de basuras en los parques locales ubicados en sus localidades o en sus proximidades, en aras a lograr mayor economía y mejorar la efectividad en la prestación del servicio.

En lo que respecta a los trabajos de mantenimiento en los parques locales, mediante Decreto Foral se encomendó a la empresa pública foral INDESA la prestación del servicio de mantenimiento de los Parques Locales de Esparcimiento de Álava por un importe de 92.973,82 euros, en 2021.

El grado de cumplimiento del citado objetivo puede considerarse elevado, en la medida que se llevaron a cabo actuaciones de mejora en los distintos parques, realizándose de forma satisfactoria el mantenimiento y la recogida de basuras de los mismos y así como actuaciones encaminadas al desarrollo y promoción de las entidades locales.

Las inversiones en parques locales (renovación de diverso mobiliario) han ascendido a 63.774,91 euros, habiéndose actuado en los municipios de Legutio, Kanpezu, Labastida, Laguardia, Urkabustaiz,

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA

Programa: 13 TOKI ERAKUNDEENTZAKO
AHOLKULARITZA

3.- Tokiko erakundeentzako lege eta ekonomia euskarria

2021eko ekitaldian egindako jarduera nagusia Arabako kontzejuetako errejidoreen hauteskundeak antolatzea izan da.

Arabako Foru Aldundia lankidetzan aritu da Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordearekin hauteskunde prozesu horretan.

Foru Aldundiaren zereginak honako hauek izan dira: administrazio ebazpen jakin batzuk hartzea, prozesuaren koordinazio orokorra, hauteskunde materiala hornitzea, banaketaren logistika eta Hauteskunde Batzordeari eta idazkaritza-udal kontu hartzailezari zenbait gastu ordaintzea.

Horrez gain, kanpaina instituzional bat antolatu da emakumeen sufragioa sustatzeko, modu aktiboan zein pasiboan, baita oro har prozesuan parte hartzea bultzatzeko ere.

Egindako ohiko jardueren artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Tokiko hainbat erakunderen abokatu defentsaren eta ordezkapenaren gastuak Arabako Foru Aldundiak hartu zituen bere gain ekitaldian zehar.
- Aholkularitza juridikoa eman zaie Arabako erakundeei, kontuan hartuta administrazio kudeaketak garrantzi handia duela Arabako landa inguruneke biztanleengandik hurbilen dauden eremuetako toki administrazioaren funtzionamendu optimoa lortzeko.
- Laguntza eman zaie kontzejuen elkarteei, langileek eta funtzionamenduak sortzen dituzten zenbait gasturi aurre egin ahal izateko.
- Programaren aurrekontuan dauden dirulaguntza izendunak eman zaizkie, bai kuadrillei, bai lurralde historikoko landa garapenerako elkarteei, zeinek beren jarduketa eremuan, beren eskualde mugapeko biztanleei zerbitzuak ematen baitizkiete.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL

Programa: 13 ASESORAMIENTO A ENTIDADES
LOCALES

Artziniega, Amurrio y Oyón.

3.- Soporte jurídico y económico de entidades locales.

La principal actuación realizada durante el ejercicio 2021 ha sido la organización de las elecciones a personas regidoras de los concejos de Álava.

En este caso, la Diputación Foral de Álava colabora con la Junta Electoral del Territorio Histórico de Álava en la celebración del citado proceso electoral.

Las tareas que realiza la Diputación Foral se centran en la toma de ciertas resoluciones administrativas, coordinación general del proceso, provisión del material electoral, logística de la distribución y abono a la Junta Electoral y secretaría – intervención municipal de ciertos gastos.

Adicionalmente, se ha organizado una campaña institucional para promover el sufragio femenino, tanto de forma activa como pasiva, así como la participación general en el proceso.

Entre las acciones ordinarias desarrolladas caben destacar las siguientes:

- Los gastos derivados de la defensa letrada en juicio y de representación de diversas entidades locales, de los que se hizo cargo la Diputación durante el ejercicio.
- Asesoramiento jurídico a las distintas entidades alavesas habida cuenta de la importancia de la gestión administrativa en el logro del óptimo funcionamiento de la administración local que se desenvuelve en los ámbitos más próximos al habitante del medio rural alavés.
- Concesión de ayuda a las asociaciones de Concejos para hacer frente a diversos gastos de personal e inherentes a su funcionamiento.
- Concesión de las diversas subvenciones nominativas existentes en el presupuesto del programa, tanto a las Cuadrillas, como a las diversas Asociaciones de Desarrollo Rural del Territorio Histórico, que prestan servicios, en sus diferentes ámbitos de actuación, a los habitantes de sus respectivas demarcaciones comarcales.

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA

Programa: 13 TOKI ERAKUNDEENTZAKO
AHOLKULARITZA

- Tokiko Erakundeen Prestakuntza Plana prestatzen parte hartu da, IVAPen bidez.
- Udalei eta kuadrillei aholkularitza eman zaie aurrekontuak, aurrekontu likidazioak eta kontu orokorrak prestatzearen eta kontabilitateko eta aurrekontuetako gorabeheren gainean.
- Kontzejuen eta ondasun erkidegoen kontuak jaso eta kontrolatu dira, baita aurrekontuak eta aurrekontu likidazioak ere.
- Toki erakundeen zerga ordenantza ereduak prestatu eta eguneratu dira.
- Toki erakundeen zorpetze eragiketei buruzko txostenak egin dira.
- Toki erakundeei ordenantzen eta arriskuak aseguratzearen inguruko eta aurrekontu egonkortasuna betetzeko egin beharrekoen gaineko aholkularitza eman zaie, kontzeptuak argitu zaizkie eta egindako kontsultei buruzko txostenak eman dira.
- Kontzejuei aholkularitza eman zaie kontuak taxutzearen gainean.
- Administrazio batzarren batzordeak eta batzordekide-kudeatzaileak izendatu dira postuak hutsik geratu direnean.
- Izen aldaketei, banantzei eta udalak eta kontzejuak sortzeari buruzko espedienteak izapidetu dira.
- Toki erakundeen ekonomia eta aurrekontu bideragarritasunerako planen eta ekonomia eta finantza planen jarraipena egin da, indarrean dauden foru arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.
- Arauetan aldaketak egiteko proposamenak landu dira, toki erakundeetako finantzen tutoretzaren eta finantzaketaren arloan, beste foru aldundiekin elkarlanean.

Ezarritako helburua Arabako tokiko erakundeek behar bezala funtzionatzea eta antolatzea dela kontuan hartuta, esan liteke helburua lortu dela, gauzatutako jarduerak bat etorri direlako

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL

Programa: 13 ASESORAMIENTO A ENTIDADES
LOCALES

- Participar en el diseño del Plan de Formación de las Entidades Locales a través del IVAP.
- Asesoramiento a ayuntamientos y cuadrillas en la elaboración de Presupuestos, Liquidaciones presupuestarias y Cuentas Generales, incidencias contables y presupuestarias.
- Recibo y control de las cuentas de los concejos y comunidades de bienes, así como de los Presupuestos y de Liquidaciones presupuestarias.
- Confección y actualización de los modelos de ordenanzas fiscales para las entidades locales.
- Elaboración de informes sobre operaciones de endeudamiento de las entidades locales.
- Asesoramiento a entidades locales en materia de ordenanzas, de aseguramiento de riesgos, aclaración de conceptos y evacuación de informes sobre consultas planteadas, así como temas relacionados con el cumplimiento de la estabilidad presupuestaria.
- Asesoramiento a concejos en materia de confección de cuentas.
- Nombramientos de comisiones y vocales-gestores de las Juntas Administrativas en las que se produjeran vacantes.
- Tramitación de expedientes de cambio de denominación, así como de desanexiones y constituciones a niveles municipal y concejil.
- Seguimiento de Planes de Viabilidad económico-presupuestario y Planes económicos-financieros de entidades locales según las Normas Forales vigentes.
- Elaboración de propuestas de cambios normativos en materia de tutela financiera y financiación de entidades locales, en coordinación con las otras Diputaciones Forales.

Teniendo en cuenta que el objetivo que se define es el óptimo desarrollo en su funcionamiento y organización de las entidades locales alavesas, el cumplimiento de los objetivos viene dado no sólo

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA
Programa: 13 TOKI ERAKUNDEENTZAKO
AHOLKULARITZA

aurreikusitakoekin eta tokiko erakundeek adierazitako betebeharrak ase direlako eta baita programaren helburuekin lotutakoak ere. Horiek horrela, betetze maila handia izan dela esan daiteke.

4.- Beste jarduketa batzuk:

Bertatik plataforma garatzen hasi da, gizarteari gune interesgarriak aurkitzen lagunduko dion sistema bat abian jartzeko proiektu pilotu gisa. Bizitzeko leku bat edo jarduera ekonomiko bat garatzeko leku egoki bat aurkitu nahi duten pertsonak dira gizartea.

13.01 programan sartuta egon arren, 2021ean Gazteriaren Foru Erakundearekin lankidetzan jarraitu da unibertsitatez kanpoko garraioaren deialdian, Gazteriaren Foru Erakundeak emandakoaren osagarri den 49.515,10 euroko dirulaguntza emanez, unibertsitatez kanpoko zikloetako ikasleentzako garraiorako, 20.000 biztanletik beherako udalerrietatik beste udalerririk batzuetara ikasketak egitera joateko egin beharreko joan-etorrietarako.

Udalerririk barruko garraioari dagokionez, aurten lau kuadrillatako bederatzik udalerririk hartu dute parte.

Bestalde, Aguraingo Udalerri 80.000 euroko laguntza puntual bat eman zaio 2021eko ekitaldi honetarako.

Arabako Foru Aldundia aktiboki ari da lanean Lautada/Aguraingo mugikortasuna hobetzeko eskaerei behin betiko konponbidea emateko. Behin betiko irtenbidea eman artean, Aguraingo biztanleen eskaerari erantzuten zaio.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL
Programa: 13 ASESORAMIENTO A ENTIDADES
LOCALES

por la adecuación de las acciones llevadas a cabo con las previstas, sino también en tanto en cuanto fueron atendidas las necesidades manifestadas por los entes locales, y relacionadas con los objetivos establecidos en el programa. En ambos sentidos, ha de afirmarse que el grado de cumplimiento puede considerarse alto.

4.- Otras actuaciones:

Se he empezado a desarrollar la plataforma Bertatik como proyecto piloto para la puesta en marcha de un sistema que ayude a la sociedad a encontrar los espacios de interés. Contemplando sociedad como aquellas personas que quieran encontrar un lugar para vivir o un lugar idóneo para desarrollar una actividad económica.

Aunque encuadrado en el programa 13.01, en 2021 se ha seguido colaborando con el Instituto Foral de la Juventud, en la convocatoria de transporte no universitario, con una subvención complementaria a la otorgada por el IFJ, dentro del transporte de estudiantes en ciclos no universitarios, de municipios de menos de 20.000 habitantes a otros municipios donde cursan los estudios, por un importe de 49.515,10 euros

En cuanto al transporte intramunicipal, en este primer año han participado nueve municipios de cuatro cuadrillas diferentes.

Por otro lado, hemos dispuesto de una ayuda puntual al Ayuntamiento de Agurain para este ejercicio 2021 por importe de 80.000 €.

Desde la DFA se está trabajando de manera activa para dar una solución definitiva a las demandas de mejora de la movilidad de Lautada/Agurain. En tanto en cuanto se formula la solución definitiva se atiende la demanda de los habitantes del municipio de Agurain.